



**ITSASONDOKO
UDALA**

BASERRIEN AZPIEGITURAK

Bideak eta ur-hornidura izan dira azken urteetan gehien landu diren azpiegiturak. Hauekin batera Foru Aldundiak saiakera berezi bat egiten ari da komunikazio sareekin, Internet azkarra baserrietara eramanez. Azken finean, helburua da herritar guztiek, kaletar nahiz baserritarrak, zerbitzu eta aukera ahalik eta parekoak izatea.

Bideei dagokionez, urteroko mantenimendu lanez gain, bi erronkatan oinarritu dira hartutako lanak: inbentarioa eta ordenantza. Ur-hornidura, berriz, sareko ura banatzeko eta ur-hartuneak (hidranteak) jartzeko bideak ari dira lantzen.